

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATERI URREZKO LUMA

*Xabier Kintana Urriaga,
Euskaltzaindiko Idazkaria*

Bilbon, 2002-VI-03

Jaun-andreok, agur, Ez da eguneroko gertakaria izaten idazle baten bizi-tzan urrezko luma jasotzea. Kasu honetan ordea, zinez esan genezake epaile-ek begi eta zentzu onez jokatu dutela, Liburuen Azoka honetako sarirako hautatu den pertsonak ohore hori ongi baino hobeki merezia baitu. Izan ere, edonondik begiratuta, gutxi dirateke Euskal Herrian Juan San Martin jaunak bere bizitza aski luze eta emankorrean gure hizkuntzaren eta kulturaren alde egindakoen pareko meriturik aurkez dezaketenak.

Ekitaldia laburra izango denez, niri ere llabur mintzatzeko esan didate eta halaxe egingo dut. Ricardo Badiola jaunak, Euskaltzaindiko Argitalpen eragi-leak, bere ohiko pazientzia eta lankortasunaz, gure idazlearen curriculum ze-hatza prestatu du, honekin batera aurkezten dudana, eta horrek, beraren bizi-tzaren glosa egiteko orduan lanik asko kendu badit ere, bere luzean buruko min berriak eman dizkit horiek guztiok laburtzeko orduan, eta beraz, beldur naiz, aukeraren maukera delakoagatik, azkenean neronek ere ez ote dudan oke-rra egingo.

Bere bibliografi zerrendari gaisetik soaldi bat eginez, begien bistan dago Juan San Martinen ugaritasuna. Batez ere, euskaraz idatzi du, baina horrega-tik ez dio muzinik egin erdaraz ere idazteari, gertakariak hala egitea hala kon-seilatzen ziotenean. Bere gairik maiteenak, eta horrexegatik landuenak, artea, historia, etnografia, historia eta literatura izanik ere, beste asko ere ukitu izan ditu, guztietan, beti, maila eta seriotasun apartaz.

Esango nuke San Martin, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik, bere herriaren kultu-ra maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihetsezina harturik, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzi-menduaz.

Zulo asko izan ditu gerraondoko euskal kulturaren itsasontziak eta langile gutxi, ordea, horiek guztiok estaltzen jarduteko. Horrek, noski, orotarako idazleak sortu zituen gure artean, beren banakako lan ugariekin bakantasunaren miseriak gainditu guran. Ez da ordea, bat ere makala izan horiek utziriko lana. Alde batetik gerrak urraturiko zauria sendatzen saiatu ziren, belaunaldien arteko zubia egin eta euskara, ordura arte ia baserritar, marinel eta langile apalen mintzaira, batez ere elizgizonek landua, Lizardiren erronkari eutsiz, edo zertarako hizkuntza bihurtzen aritu ziren, lehenagoko garo-lurrina galdu gabe, oraingo eta biharko asfalto-usaina, zientzia eta modernotasun-kutsua emateko. Eta hori guztiori zinez eskertzekoa da, haiek inoiz haztamuka eta noraezean pauso baldarrez zapalduko zidor haietatik ondoko belaunaldiok etorri baikara, agian bidea areago zabaltzeko, baina jada aitzindari haien neke-izerdiak jasan gabe, nora gindoazen argiago jakinda.

Bidezkoa da, beraz, hain lan mergatz eta luzaro gaizki ikusia azkenean ezagutu eta publikoki estimatzea.

Ez nuke hitzalditxo hau amaitu nahi, ordea, Juan San Martinen anekdota txiki bat aipatu gabe. Maiz, eta batzuetan pentsa daitekeen asmorik zitale-naz, euskal idazleen kultur mundua aski mugatua, probintzianoa eta apala dela esan da, euskaltzaletasuna eta unibertsaltasuna bateraezineko zerbait balira bezala, hots, bikaintasunaren maila hegazkor hori espainol-frantsesez idazten duten izaki goi-argituentzat erreserbatu dagoela sinetsaraziz.

Francoren peko diktaduraren azken aldian geundela, gure artean erraz konprenitzeko lilura sortu zen ekialdeko marxismo joeretarako. Juan San Martin, eibartar peto-pettoa bera, betidanik nabarmendu da gizarte ezberdintasunak ezereztu eta justizia sozialaren alde, ezein alderdi konkretutan jardun ez arren. Gogoan dut, duela hogeita bost bat urte inguru, elkarrekin bazkaltzen ari girela eta, nola ez dakidala, arazo politiko hori agertu zela gure artean. Juan, funtsean, bat zettorren gazteagoen kezkekin, baina, halere, ez zuen aparteko berotasunik agertzen marxismoaren eta ekialdeko herri komunisten alde. Hango esperientzien berri bazuen eta, bat-batean, hauxe esan zigun: «Ene ustez, etorkizuna ez da hortik etorriko. Europan badabil aspaldion mugimendu berri bat, gizakia naturarekin orekatu nahi lukeena, ekologistena alegia. Horiek ere ezkerrekoak dira, baina bestelako ikuspegi zabalagoaz. Nire ustez, geroan uste baino garrantzi handiagoa izango dute horiek».

Aitor dut orduantxe entzun nituela nik lehenbiziko aldiz ekologia eta ekologista hitzak, norengandik eta zenbaiten iritziz Eibarko idazle «probintziano» bat besterik ez zen batengandik, orduko erdal mundu itxuraz unibertsal hartan ekologia delako hori zertsu izan zitekeen susmatu ere egiten ez zen denboran. Eta ekologismoak zuzen zein zeharka lorturiko arrakasta eta giza kontzientzia berria eratzeko orduan izandako garrantzia ikusita, idazle ez eze, aurrikusle-ahalmenak ere onets geniezazkioke gure San Martini.

San Martinen beste ezaugarri bat, ondo gomutatzeko modukoa bera, Estatuko beste literaturak ezagutu eta horko idazleekiko harremanak izateko interesa izan da, elkarren berri jakiteko eta elkarlanean aritzeko asmoz. Hori, gaur egun erabat normala irudi dakigukeen arren, garai hartan ez zen hain ohikoa, eta bide horretako lehen pausoak ematea zor diogu, halaber, gure eibartarrari.

Baina jadanik aski eta sobera mintzatu naizela uste dut eta, beraz, neure jarduna eten beharra daukat. Hortxe dira, gorago aipatu dudan curriculum xehatu horretan, gure idazlearen argitalpen, kargu eta idazle ibilbideko datu zehatzak, horiek banan banan aztertu nahi dituenaren argigarri. Horiengatik guztionatik eta gaurko sariagatik, edonola ere, bihoazkio Juan San Martin idazle, euskaltzain eta adiskide maiteari guztion zorion eta txalorik beroenak.